

BALIO PROPOSAMENA:

Euskal musika entzuteko aplikazioa da, euskal artistei bultzada eman eta euskal kulturaren transmisioa bermatzea helburu duena. Gazteek bertako musikaren ezagutza eskasa dute, normalean kanpoko musika entzuteko ohitura bait dute. Guk hemengo musikari eta abeslariak bizirik iraun dezaten nahi dugu eta beraien kantak eta bizipenak mundura zabaltu nahi ditugu. Hori dela eta, gure musika-aplikazioarekin Euskal musika entzuteko aukera izateaz gain, artisten inguruko datuak eta informazioa eskainiko dugu. Talde horiei egindako elkarrizketen inguruko podcastak publikatuko ditugu. Gure proposamena besteetaz bereizten duen gauza nagusia, artisten eta entzuleen arteko hurbiltasuna da; musikaz gain, eskaintzen dugulako artistek eta taldeek nola ikusten duten mundua eta haien ikuspuntua. Hots, haien informazioa eskainiko genuke, musikarekin eta elkarrizketekin, baina garrantzitsuena iruditzen zaiguna da nolakoak diren bai artistak eta bai taldeak beraien egunerokotasunean. Hain garrantzitsua iruditzen zaigu jende askoren ereduak direlako. Orduan, funtsezkoa da euskal artistek eta taldeek beraien iritiza ematea gehien bat gaurko gizartean pil-pilean dauden gauzetaz.

Informazioa eskaintzeaz gain, artisten diskak eta merxandisinga salduko genuke. Horrela gure bezeroei beste aukera batzuk emango genien haien talde gogotsuen gauza baliogarriak erosteko. Horrekin, gure ikuspuntutik, hurbiltasuna sustatuko genuke eta baita bezeroak ere aplikazioaren parte sentituko lirateke. Baina ez zen gauza hor geratuko, ekitaldiak eta festibalak sortuko genituzke eta jasotako mozkinen kopuru zehatz bat Palestina Herriarentzat abiatuta egongo lirateke. Era berean, gure ideologiak indartuko genituzke eta argi geratuko ziren.

Horretaz gain, gure enpresan, genozidioaren kontrako filosofia eta justiziaren aldeko jarrera oso garrantzitsua da. Horretarako, Palestinaren alde borrokatzen duten elkarteekin elkarlanean arituko gara.

Spotify eta teknologia militarren arteko lotura

Gure proiektua justifikatzeko, ezinbestekoa da Spotifyren jabea den Daniel Ek-ek egindako inbertsioak aipatzea. *Carro de Combate* aldizkariak argitaratutakoaren arabera, Ek-ek 700 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu Helsing izeneko enpresan. Enpresa honek adimen artifiziala erabiltzen du dronak eta arma-sistemak garatzeko. Helsing-ek gerra-teknologia ekoizten du Europako hainbat armadarekin lan egiten du. Lotura zuzen horrek polemika handia sortu du, erabiltzaile askok uste baitute Spotify ordaintzean zeharka gatazka belikoak finantzatzen ari direla. Horregatik, gure aplikazioak etika eta euskal kultura lehenesten dituen alternatiba bat izangoi du.